

# Noticias de Álava

Araba + Local Alavés Baskonia **Cultura** Actualidad Economía Deportes Opinión Vivir Vivienda Servicios

Agenda Ortzadar

Diario de Noticias de Álava » Cultura » Noticias de Vitoria




## Ikasle berria eta lagun oso berezia

**EDU ZELAIETA ETA TXABI ARNALEK BIGARREN LIBURUA ARGITARATU DUTE ELKARREKIN, 'BERTA BEREZIA' IZENBURUPEAN**

EUNATE F. DOMÍNGUEZ | 19.10.2021 | 00:36

"Ondoan dudán neska honek Berta izena du, eta gurekin egongo da hemendik aurrera. Ongi etorri gure taldera, Berta! Zerbait esan nahiko zenuke beste guztiok zu ezagutzen hasteko-edo?", galdetzen diote ikasle berriari. "Egunkarietan eta telebistan nire jaiotzaren berri eman zuten, oraindik ere amaren tripan nengoela, komunikazio sistema berri bat asmatu nuelako". Burutsua da, lagunena laguna, dibertigarria eta irudimen handikoa. Berezia, hitz batean esanda, Txabi Arnal eta Edu Zelaieta idazleentzat. Eta hortik dator hain zuzen ere liburu berri honen izenburua: *Berta Berezia*. Erein Argitaletxearen eskutik, eta liburu-denda guztietan salgai, Edu Zelaieta eta Txabi Arnal, Alexandre Fernández ilustratzailearekin batera, 68 orrialdeko liburu hau argitaratu berri dute, 10 eta 13 urte bitarteko haurrak dibertitzeko eta entretentzeko, Bertaren irudimenarekin eta abenturekin.



Edu Zelaieta eta Txabi Arnalek liburu berria eskuen artean dutela. Argazkia: Pilar Barco

Liburu honekin, ez da idazle hauek elkarrekin liburu bat argitaratu duten lehen aldia. Izan ere, 2018an beren irudipenetatik istorio bat sor-tzeko esperientzia hori probatu zuten, eta hainbeste gustatu zitzaizen esperientzia, non berriro errepikatu duten. Orduko hartan, beren irudimena umeentzako izan zen, baina orain helduagoengana iritsi nahi izan dute. "Esperientzia polita izan zen liburu bat elkarrekin idaztea. Unibertsitateko irakasle gisa ordu asko partekatzen ditugu, eta, gainera, lagun onak gara; beraz, gustura egon gara elkarrekin lanean", dio Eduk. Beraz, *Berta Berezia* ia bakarrik jaiotzen, kontzeptuak batera-tzeko ahalegin handirik egin gabe. Hain zuzen, liburu dibertigarri hori sortzeko ideia ahalik eta modurik harrigarrienean sortu zen. Gogoeta batetik, hain zuzen. "Arratsalde batean, Durangoko Azokatik Gasteizera itzuliz, hausnarketa bat egin genuen. The Beatles taldearen hasieran arrazoi pertsonalengatik bateriak taldea utzi zuela gogoratu genuen. Eta arratsalde hartan horren gainean aritu ginen. Damutuko al litzateke taldea utzi izana taldeak lortu duen arrakastaren ondoren?", hausnartu zuten. Horixe izan zen, hain zuzen ere, jatorrizko ideia. Taldea hain ospetsua izan baino lehen bertatik alde egitea erabaki zuen kidearen alderik ilunena kontatzea. Hala ere, lanordua, ikasketa, dibertsio eta elkarrizketen ondorioz, biek erabaki zuten Berta izango zela liburu honen protagonista; oso gazte berezia, dibertigarria, lagunena oso laguna baina eguneroko bizitzan bihurrikeri ugari egiten dituen.

**HELBURUA** Berta dibertsioa maite duen gazte bat da. Asko gustatzen zaio ondo pasatzea, lagunei leial izatea, eta irakurle askok sentituko dira berarekin identifikatuta. Adibidez, istorio horien artean lehen musuarena dago, pertsona askorentzat une ahaztezinak. Liburu honek gogoetara gonbidatzen duen kapitulu gogorra ere badu, balioen garrantziari buruzkoa. Baina ez da asmo didaktikorik duen liburu. Txabi eta Edu idazleek azaltzen dutenez, liburu honen helburu bakarra da umeak entretentzea eta irakurketaren eta plazeraren bidean gidatzea. "Liburu honek ez du inolako asmo didaktikorik, nahiz eta gu irakasleak izan edo, hain zuzen, irakasleak garelako, ez dugu haur-literatura gogoeten bidetik eraman nahi izan. Haur-literatura artea da, dibertigarria. Plazeraren bidetik gidatu nahi izan dugu", dio Txabi Arnalek. "Badira kapitulu sakonagoak, baina gure helburua da txikien literaturak duen garrantzia erakustea eta entretenti-tzea", erantzun du Edu Zelaietak.

Gainera, anekdota gisa, liburu hau pandemia baino lehen idatzi zen, baina koronabirusak bere aurkezpena geldiarazi zuen. Orain, *Berta Berezia* liburu-denda guztietan dago eskuragarri, baina, gainera, laster kaleratuko da bi idazle horiek elkarrekin idatzi duten hirugarren liburu ere. *Txatxani handiaren azken trukoa* izango da. "Momentuz, irakurle guztiek Bertarekin gozatzea nahi dugu, guk istorio hauek idaztean gozatu dugun bezainbeste. Bigarren zati bat egotea gustatuko litzaziguke, baina irakurleek erabakiko dute hori, momentuz batek daki!", ondorioztatu dute.

Alexandre Fernandezek ilustratutako liburu da, Erein Argitaletxeak argitaratua. Euskaraz idatzita eta 68 orrialde ditu

Txabi Arnal eta Edu Zelaieta idazleek elkarrekin argitaratzen duten bigarren liburu da 'Berta Berezi', berriki argitaratua



### Más información

- Irakur-zaletasuna sustatuz.
- "Ez da beti guztiz satisfactorioa, oso zaila baita ondo idaztea, baina sentsazio guztiz ahaltsu bat da".
- Nortasun bezalako eleberririk gabe.

### Temas relacionados:

Aurrerá Euskara Liburu

### Cultura



#### Agenda de ocio y cultura: jueves 20 octubre 2021

Bajo el título 'Guerra y paz', la Banda Municipal de Música de Vitoria ofrece hoy a las 19.30 horas...



**La Semana de Cine Documental reúne lo mejor de la creación vasca**



**Kalakan y Euskadiko Orkestra se unen este jueves en el Principal**



**"Espero que la gente se emocione, disfrute, se divierta, pase miedo y hasta se enamore"**

Noticias de Cultura

### Araba

VIVAREA NOGAROA



#### Más pasos para que los viticultores cubran sus costes de producción

La Diputación presenta mañana el informe de precios que sus técnicos han elaborado y las Juntas...



**Vitoria, Valencia, Gijón, Fuenlabrada, Logroño y Valladolid emprenden el proyecto 'Ciudades Conectadas' sobre movilidad**



**Vitoria habilita una pista de boccia en Zabalgana**



**Simulacro de accidente aéreo en Foronda**

Noticias de Araba

### Sociedad



#### La UPV/EHU suspende como alumno al autor del tiroteo en el campus de Leioa

Toma la decisión "a la vista de la gravedad de los hechos y de la alarma social que han..."



**"Reconocer y reparar el daño": personalidades valoran esta década sin ETA**



**Osakidetza tendrá un innovador equipo de radioterapia donado por Amancio Ortega**



**El Gobierno Vasco advierte de que los datos de la pandemia "no son buenos"**

Noticias de Sociedad

Lo último	Lo más visto
1. La Audiencia Nacional acuerda la entrega a EEUU a 'El Pollo' Carvajal	1. La Audiencia Nacional acuerda la entrega a EEUU a 'El Pollo' Carvajal
2. La Eurocámara reconoce al opositor ruso Navalni con el premio Sajarov 2021	2. La Eurocámara reconoce al opositor ruso Navalni con el premio Sajarov 2021
3. Exigen comprobar la deuda del Estado con la "hucha de las pensiones"	3. Exigen comprobar la deuda del Estado con la "hucha de las pensiones"
4. Isabel Díaz Ayuso presenta en sociedad a su novio Alberto	4. Isabel Díaz Ayuso presenta en sociedad a su novio Alberto
5. La UPV/EHU suspende como alumno al autor del tiroteo en el campus de Leioa	5. La UPV/EHU suspende como alumno al autor del tiroteo en el campus de Leioa
6. Angelina Jolie brilla en 'Eternals': "Mis hijos creen que Thena se parece a mí"	6. Angelina Jolie brilla en 'Eternals': "Mis hijos creen que Thena se parece a mí"
7. Parques Tecnológicos de Euskadi prevé 126 millones de inversión hasta 2024	7. Parques Tecnológicos de Euskadi prevé 126 millones de inversión hasta 2024
8. Osakidetza tendrá un innovador equipo de radioterapia donado por Amancio Ortega	8. Osakidetza tendrá un innovador equipo de radioterapia donado por Amancio Ortega
9. Un niño burla la seguridad e intenta 'robar' el solideo al Papa	9. Un niño burla la seguridad e intenta 'robar' el solideo al Papa
10. Fin al culebrón del Baskonia con TD Systems	10. Fin al culebrón del Baskonia con TD Systems

HOME Araba + Local Alavés Baskonia **Cultura** Actualidad Economía Deportes Opinión Vivir Vivienda Servicios

Noticias de Álava

#### Otras webs de Grupo Noticias

Deia  
Diario de Noticias  
Noticias de Gipuzkoa  
Onda Vasca

Promociones  
Suscripción a Diario  
Noticias de Álava

Suscripciones por RSS  
Distribución  
Trabajos de impresión



Otras webs de Grupo Noticias  
Deia | Diario de Noticias | Noticias de Gipuzkoa | Onda Vasca

© Diario de Noticias de Álava - Edición Digital y Oficina Comercial: Avda. Gasteiz 22 bis 1ª Oficina 13, Vitoria - Gasteiz, Tel: 945 163 100 Oficina Comercial Tel: 945 201 000, oficinacomercial@noticiasdealava.eus

Aviso legal | Condiciones de uso | Mapa web | Contacto | Cookies | Política de Privacidad